

Ta amaitzeko, euskaltzale batek idazten zidana: egunak joan, egunak jin, Jainkoa dardilla guziokin.

Zure-zure

Intxausti'tar Joseba

Arantzazuko praillea

---

L O Y O L A ' t i k .

"Euskal Etxea" Loyola'n

Sayo bat baizik ez da izan, esateko, guk emen egin duguna: leen sayoa. Ta leena izanik, nai ta naiez bear zituen olako edo alako maketsak; ez zekigukean batpatean irten, guk besterik nai ta ere, erabat bipilla. Urteekin ta aurtengoak eman digun atuiñarekin obe genezake noski, datozen urteetan, aurtengo sayo au. YAKINen aditzera emateak ere ez luke bearbada balio, baldin alderdi on bat izan aal ezpa'leza: ots, guk egin duguna jakiñez, pizkor ditekela beste zenbait praille gazte ere guk egin dugunaren antzeko beste sayo bat egitera. Orixe bai litzakela ederra! Gero euskai saillen batean lan egin nai dugunok, bear bearrezkoa dugu zailtzea. Txalogarria litzake, arean, praille gazteen arteko onelako elkar-leia bat: nundik irtingo alegia oberenik lan egingo, duten gazteak, naiz idatziz naiz mintzatuz.

Laburki ta jakin'garrietak soilik emateko esan didazute. Onenean danik eta jakin'garriena, zenbaitentzat bederen, auxe izango da: jesulagunak olakorik antolatu dutela jakitea. Ez bait-dute uste gure artean onelako azirik erne ditekunik. Auxe izan da dena: jesulagun gazte batzuk illabete osoa bildu gera Loyola'n euskera landu ta obetzeko. Oña'n Teoloji ikasten ari geranak giñan geientsuenak; ikastetxeetan

irakaskintzan ari diren bizpairu ere erantsi zaizkigu. Geiago izan gintezkean, ta geiago izango giñakean noski, etor zitezkelako baimena garaizago adiraz ba'genie guziei. Amabitik amabost lagunera biltzen giñan; pilla polita, denon artean egoki lan egiteko.

Eguerdi artean ikastaldi ta irakastaldi bat; bazkal ondoan beste orrenbeste. Bildu giñan den-denok nola edo ala mintzatzeko gauza baitgiñan, zeran artu dugu batikpat arreta: alik eta ondoen mintzatzan, izkera aberasten, miiak zorrozten. Gure artean mintzaera bakarra euskera izan da illabete ontan. Jatorduan ere irakurgaiak euskerazkoak. Jolasean naiz ibiltera irtetean, euskeraz ari oi giñan. "Joanak joan" izan dugu eskolako irakurgaia. Orrez gaiñera, aditzari eman diogu astiñaldi epel bat.

Azken egunetarako, ta etorri naiko zukean zenbaitek Euskal Etxe'ra etortzerik izan ez zuelako, itzaldi batzuek eratu genituen. Leen egunez, Mitxelena Luis jauna etorri zitzaigun. Gaurko eusko-literaturaren joerari buruz itzegin zigun, oi duen tajuz ta jakitez. Bigarren egunez Txillardeggi jauna izan genuen. Gaia or nunbait ber-bera ukitu zuen. Oni, gaurko gazte ikasñ bati dagozkion kritika zorrotza ta bizarririk gabeko ago-jarioa zerizkion. Argi ta zabal mintzatu zitzaizkigun. Irugarren egunez Basarri jauna. Euskeraren egoera artu zuen itz-gai. Izkera dotorez ta ipin-apan erriaren zenbait berri eman zigun.

Auxe izan da dena. Emen aritu geranok pozik gelditu gera, ta datorren urtean, aal ba'ledi, berriro sayo bera egiteko asmotan. Iñork atsegin badu gure lana, pizkor bedi beste orrenbeste egitera. Denon onurako izango da.

Altuna'tar Patxi, S.J.

### B I Z K A I t i k

(Derio'ko apaizgai batek Prantziko berri onak bialdu dizkigu).

Agorrillaren 6-ko "HERRIA"-n agertu zan artikulu batek auxe inoan prantzerez: